

TOLOSA ▶

Gospel doinuak Leidorren

Gaur, Black Heritage Singers ▶ 2



Zilarrezko Q saria Uzturpe eta Laskorain ikastolentzat

SARIA ▶ Kudeaketaren kalitatea saritu du Euskalit-ek; Bilboko Euskaldunan jaso dute saria

EKITALDIA ▶ Guztira 33 etxek jaso dute saria; Eusko Jaurlaritzako sailburuak izan ziren ekitaldian ▶ 3



ALDABA ▶

Nafarroako Aldabarekin senidetu dira

Hango udal ordezkariak eskualdea bisitatu zuten larunbatean ▶ 5

IBARRA ▶

Merkatu Txikiaren emaitza onak

Misio Taldea gustura dago eta eskerrak eman ditu ▶ 6

LEITZA ▶

Agirre-Iraola bikoteak Nafarroako Pala Txapelketa irabazi du eta Euskal Herriko Txapelketara doa

Gomazko pilotarekin aritzen dira, 22 urtez azpikoetan ▶ 7

honekin ziber ileapaindegia 943 67 22 44
Santa Maria plaza, 1
20400 TOLOSA

ASTELEHENA 20: 15:00-20:00
ASTEARTEA 21: 9:00-13:00 / 15:00-20:00
ASTEAZKENA 22: 9:00-13:00 / 15:00-20:00
OSTEGUNA 23: 9:00-20:00 (egun osoa irekita)
OSTIRALA 24: 7:30-15:00

gabon asteako ordutegia

hitza

lagunen
txokoa

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

- ▶ HITZA laguntzen duten harpidedunen artean **NEREA LENTZERIA**k oparitutako oherako arropa zozketatuko dugu.



LENTZERIA

Errementari kalea z/g
TOLOSA
Tel.: 943 67 16 30

KULTURA ▶

Gospel kontzertua gaur, Black Heritage Singers taldearekin

20:00etan hasiko da emanaldia Leidorren; alde zurrerak Kultur Etxean; leihatilan ere bai



Black Heritage Singers laukotea Leidorren ariko da gaur. HITZA

IRATXE ETXEBESTE

Gospel emanaldi handi batez gozatzeko aukera izango da gaur herrian, 20:00etatik aurrera Black Heritage Singers taldearen kontzertua entzuteko aukera izango delako Leidor zinema antzokian. Rhonda O'Neshia Chambers, Stephen M. Johnson, Alisa Patrick eta Jerry Smith dira taldeko kideak. Azken hori da taldeko konposatzaile, musika zuzendari, abeslari eta pianojolea.

Amerikako Estatu Batuetako Mississippi estatuko abesbatza talde handiekin harreman estua du laukoteak: The Mississippi Mass choir, Children of Israel eta Black Heritage choir abesbatzekin, esate baterako. Talde horiek guztiak bira handiak egin dituzte azken urteetan Europan, eta, besteak beste, Donostiako Kursaal aritutakoak dira azken abesbatzakoak. Hain zuzen ere, joan den

BLACK HERITAGE

Jerry Smith, Rhonda O'Neshia Chambers, Stephen M. Johnson eta Alisa Patrick dira taldeko partaideak

SARRERAK

Kontzerturako sarrerak Kultur Etxean eskura daitezke alde zurrerak; leihatilan 10 eurotan izango dira salgai

Tolosako Udala

IRAGARKIA

Tolosako Udal Batzarak, 2004ko urriaren 27an, harturiko erabakieraren bidez, hasierako onespina eman zion Janani eta edariak saltzeko makinen instalazioa eta funtzionamendua arautzen duen Ordenantza osagarriari. Hori dela eta, onarturiko ordenantza, 2005eko urtarrilaren 23a 13:00rak arte jendaurrian jarzteko erabaki zuten, erreklamazioak eta iradokisunak aurkezteko.

Epe honen barruan erreklamazioen edo oharpenen aurkezten ez bada, ordenantza behin betiko onartutaz joko da.

Tolosa, 2004ko abenduaren 17a
ALKATEA

HAUR PARKEA ▶

Marrazki lehiaketa izango da arratsaldean

Gabonetako Haur Parkean marrazki lehiaketa izango da gaur arratsaldean, 17:00etatik aurrera. Horrez gain, eguneroko ekimen finkoak, puzgarriak eta txikientzako ludoteka ere zabalik izango dira. Etzitik aurrera goizez eta arratsaldez irekiko dute parkea, eta gaur eta bihar 17:00etatik 20:00etara izango da zabalik.

HEZKUNTZA ▶

Hirukideren Gabonetako jaialdia bihar

Atzo Leidor zinema antzokian egin zuten Hirukide ikastetxeok Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzat eta familientzat Gabon jaialdia, eta bihar, berriz, Gainberrin egingo dute jaialdia Haur Hezkuntzako 1. zikloko ikasleentzat eta senideentzat. Antzerkia, abestiak, bertsoak... izango dira 16:30ean.

GABONAK ▶

Gabonsariak banatzen ari dira Harizpe elkartearen

Harizpe Jubilatuen eta Pentiodunen elkartearen Gabonsariak banatzen ari da hila-ren hasieratik, eta zuzendari-tzako kideek adierazitakoaren arabera, gaur izango da sariak jasotzeko azken eguna. Horretarako, elkartearen egoitzako beheko solairuko areto nagusira joan behar dute bazkideek, 10:30ak eta 12:30ak bitartean. Behar-beharrezkoa izango da bazkide txartela eguneratua eramatea saria jasotzeko.

INAUTERIAK ▶

Emakumeek danborradan parte hartzeko

Inauterietako danborradan parte hartzen duten emakumeek bilerara deitu dituzte antolatzaileek gaurko: Kultur Etxean bilduko dira, 20:00ak aldera. Orain arte sekula atara ez diren emakumezkoek ere deia egin nahi diete danborradaren antolatzaileek, aurtun parte har dezaten.

 TOLOSALDEA GOIMAILAKO I. II. INSTITUTUA 			
FORMAKUNTZA IKASTAROAK (Langheentzat) 2004/05			
BULIFIKAZIO PROFESIONALEN SISTEMA - KATALOGO MODULARRIA			
IKASTAROA (KREDITO FORMALTOKO)	ORDUAK	HASIERA	ONDUTSIA
Prozedura programazioa CNC	40	2005-05-10	18 - 21
Data basea (Access)	30	2005-05-10	18 - 21
Lanaren proiektatzea eta kontrola	18	2005-05-18	18 - 21
CAD 3D Modelatzea eta planak (SOLID EDGE)	30	2005-05-12	18 - 21
Kalitatea	60	2005-05-17	18 - 21
Mekanikako Industrian Seguritatea	40	2005-05-17	18 - 21
Web orrien dibulgazioa (Apkikariorako instalazio proie.)	60	2005-05-17	18 - 21
Analisi kontabilde	60	2005-05-17	18 - 21
MRO/MAG solidadura horizontal operazioa	60	2005-05-17	18 - 21
CAD 2D (AutoCAD 2005)	40	2005-05-24	18 - 21

Matrikula eta informazioa: Telefonoa 943 85 11 47. Sarria lurtu, 17 - 20400 TOLOSA
E-mail: izabehard@tolosaldea.com Web: www.izabehard.com

TOLOSA-IBARRA ▶ HEZKUNTZA



Sariak banatzeko unea; tartean Nekane Tolosa eta Joxe Martin Aizpuru zuzendariak eta Anjeles Iztueta Hezkuntza sailburua. HITZA

Laskorain eta Uzturpe ikastolek Zilarrezko Q saria jaso dute Bilbon

Herenegun izan zen ekitaldia Euskalduna jauregian; Eusko Jaurlaritzako lehendakariordea eta sailburuak ziren bertan

JOXEMI SAIZAR

Herenegun iluntzean Bilboko Euskalduna jauregian egindako ekitaldian jaso zuten Tolosako Laskorain ikastolak eta Ibarako Uzturpe ikastolak Euskalit-eko (Kalitaterako Euskal Iraskundea) Zilarrezko Q-a. Ekitaldian Eusko Jaurlaritzako ordezkari zabalak izan zen:

Idoia Zenarruzabeitia lehendakariordea, Hezkuntzako Anjeles Iztueta, Kulturako Miren Azkarate, Industriako Ana Agirre eta Osasunako Gabriel Inclan sailburuak. Jesus Murga Euskalit-eko lehendakaria ere izan zen. Kudeaketaren kalitateari euskal saria 33 erakundek jaso zuten: urrezko 6 (Fagor eta Ekintza ikastola, besteak bes-

te) eta zilarrezko 27. Hauen artean osasungintza, industria eta zerbitzuak (Fagor eta Eroski tartean), telekomunikazioak (Euskaltel), kultura (EITB eta Guggenheim) eta hezkuntza alorrekoak daude. Ebaluatzaileei diplomak banatu zizkieten eta Europako saria jaso dituztenek ere hitz egin zuten. Saria jaso dutenek egindako lana eta es-

fortzua eta kalitatearen garrantzia goraipatu zuten

Ekitaldira bi ikastoletako irakasle, guraso eta ikasle batzuk joan ziren, guztira 70 bat lagun, autobus banatan. Aretoa jendez gainezka zegoen, 2.200 eserlekuak beteta.

Bi ikastoletako zuzendariak jaso zuten saria, Laskoraingo Joxe Martin Aizpuru eta Uzturpeko Nekane Tolosak.

«Oso giro atseginean egindako ekitaldia izan zen. Anjeles Iztueta sailburua ere oso gustura agertzen zen», adierazi dio HITZARI Joxe Martin Aizpuru. «Azkenean saioa luzatu egin zen, sari asko banatu eta hitzaldi ugari izan zirelako, baina festa giroan joan zen. Gustura gaude», azaldu du Nekane Tolosak.

Errekonozimenduak jaso ondoren, Euskaldunara joandakoek *lunch* edo koktel ederri izan zuten, «ugaria eta goxoa» denen esanetan.

TOLOSA ▶ FUTBOLA

Trintxerperen aurka galdu arren, Tolosak lidergoari eusten dio

Tolosako taldeak ezin izan zion Trintxerperi aurrea hartu, 1-0 galdu zuen partidua

EDURNE AYUSO

Eguraldiaren modura, pasaden larunbatan Don Boscon ikusi zen partidua guztiz grisa izan zen, ditzira gutxikoa eta geldoa. Tolosarrek ez zuten asmatu ez erasoan ez eta defentsan ere. Trintxerpek 1 eta 0-eko emaitzarekin irabazi zuen arren, etxeko taldeak ere ez zuten maila oso ona erakutsi.

Tolosako delegatuaren hitzetan, «orokorrean, ez zen partidu ona izan». Partidako lehen zatia izan zen motelena. Eguraldi txarraren eraginez ez ziren jokaldi oso onak ikusi. Trintxerpek partidako 14. minutuan gola sartu zuen. Tolosarrek erasoari gogor ekin zioten arren, ezin izan zioten emaitzari buelta eman eta geldo samar bukatu zuten lehen zatia.



Partidu bat Berazubini. M.SOROA

Bigarren zatian tolosarrek joko apur bat hobetzea lortu bazuten ere, hau ez zen irabazteko nahikoa izan. Luis Lasak gol bat sartzeko aukera ederra

izan zuen, baina ez zen posible izan. Gainera, Ekaitz Zuloaga talde tolosarreko jokalaria kaleratu zuen arbitroak. Tolosako delegatuaren hitzetan «epaileak Trintxerperen alde egin zuen nabarmen». Dena dela, momentuz, tolosarrek lidergoan jarraitzen dute. Don Boscon jokatu zuen taldea ondoko jokalariek osatu zuten: Apezetxea, Gorka, Errasti, Unai, Jon, Romero, Orue, Aierbe, Aranguren, Lasa, Prados, Garagarza, Ekaitz eta Eloa.

Hurrengo partida datorren ostiralean jokatu du Tolosako futbol taldeak Real Union taldearen aurka. Partidua 16:30ean hasiko da Berazubini. Tolosako jokalariek leheneko postuari eusteko gogor lan egin beharko dute datorren partidua horretan ere.

TOLOSA ▶

Garaipen ikusgarria lortu du Laskorainek

Elgoibarren aurkako derbian 2-4 gailendu ziren tolosarrek; 19 puntu dituzte jadanik

I. ETXEBESTE

Denboraldi honetako aurreko hirurak galdu eta gero, Gipuzkoako laugarren derbian ez zuten hutsik egin Laskorainek. Horitxoez azken jardunaldietan emaitza onak pila-tzen ari zen San Pedrori egin zioten bisita, eta 2 eta 4 gailendu ziren. Egia aitortzekotan norgehiagoka ez zen baxterre samurra izan. Lehen zatian sanpedrotarrek joko maila altua erakutsi zuten. Hiru arrazoiengatik ez zen Laskorain lehen zatian atzetan geratu: defentsan osatutako lan eskuzabalagatik, Domentxeren geldituengatik eta markagailua estreinatutako lan eskuzabalagatik, Domentxeren geldituengatik eta markagailua estreinatutako lan eskuzabalagatik, Domentxeren geldituengatik eta markagailua estreinatutako lan eskuzabalagatik. Banakoarekin hartu zuten bi taldeek aldegarritarako bidea.

Bigarren zatian Laskorainekoen jokoak nabarmen egin zuten garrantzitsu. Horitxoez defentsa doitzen hobeto asmatu zuten eta kontraerasoan amorruearekin irten ziren hiru puntuen bila. Horrela, Yustosen kontraeraso batean etorri zen Saldias kapitainaren 1 eta 2koa, eta bukarerako bi minuturen faltan, elgoibartarren berdinketaren ondoren, Barriolaren 2 eta 3koa iritsi zen. Amaierako 2 eta 4koa Telletxeak sartu zuen 10 metroetatik. Garaipen honekin Laskorainek 19 puntu poltsikoratu ditu 11 jardunalditan, eta 2004. urtea txapelketako goiko postuetatik agurtuko du. Beste urte bikain bat bete du Laskorainek, merito handikoa oinetakoak zintzilikatu dituzten laskoraindar historikoen zerrenda aztertuta.

Mexikon lanean aritzeagatik Elgoibarren egon ez zen Mikel Altuna pitxitxiari eskaini zioten hiru puntuen altxorra bere taldekideek.

KEY-LAN
Sarraigintza

Nafarroa etorb, 13 behe - TOLOSA
Mug.: 670 41 79 22
Tel./Faxa: 943 65 03 13

VILLABONA ▶

Euskarazko produktuen katalogoa

Euskarazko liburuak, diskoak, mahai-jokoak, filmak... biltzen dituen katalogoa banatu die Villabonako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Batzordeak herriko ikasleei. 16 urte bitarteko haur eta gazteentzako produktuak bildu dira 2004-05 ikasturterako katalogo honetan. Katalogo hau, Hego Euskal Herriari banatu da orokorrean, guztira 220.000 ale inguru. Katalogoaren helburuetako bat gurasoei ikustaraztea da euskaraz eskolatzearekin bakarrik ez dela ziurtatzen haurra euskaldun oso izango denik, hau da, haurren aisialdia oso garrantzitsua dela euskara bereganatu dezan.

IRURA ▶

Xake txokorako izena emateko azken eguna gaur

Irurako Ikastolan eta udal-etxean eman daiteke izena Xake txokoran eta horretarako azken eguna da gaur. Urtarrilaren 15etik martxoaren 22ra antolatu nahi da egitasmoa. Larunbata goizetan izango zen, udal liburutegian, goizeko 11:00etatik 12:30era.

ANOETA ▶

Dantza-sokan izena eman dutenen bilera

Gaur, 20:00etan, dantza-sokan izena eman dutenek bijlera izango dute udaletxean, ekitaldiaren nondik norakoa azaltzeko. Norbaitek izena eman nahi badu, gaur izango du azken aukera, bilerraren ondoren zerrenda itxi-ko baita.

EGUBERRIAK ▶

Gabonetako egitarau oparoa

Antzerkia, musika, zinema eta kirola izango dira Villabonan, Asteasun eta Anoetan



Gabonak gertu daudela eta, urtero bezala Villabonako Dr. Fleming ikastetxera Mari Domingi joan da. Olentzeroarentzat gozotzatitako eskutitzak banan-banan jaso ondoren abestu zioten agurtzeko. Joan da aurten ere Olentzeroaren mezulari hau, bere saskia txikiaren nahiez eta eskaeraz beteta. HITZA

IMANOL GARCIA

Olentzero izango da egun hauetako protagonista Villabonan, Asteasun eta Anoetan. Musika eta festa ekitaldi ugari izango dira bere inguruan. Baina horretaz aparte, antzerkia, abesbatza, trikitixa eta txistu musika, zinema, aizkolariak eta ziklo-krosa ere ez dira faltako Gabonetako egitarau oparoan.

VILLABONA

Olentzero-Mari Domingi. Eguberrietako egitarau oparoa izango dute billabonatarrek eta herrira joaten direnek. Gaur bertan, Loatzo musika eskolako ikasleek Gabonetako emanaldi berezia eskainiko dute. Ostiralean, hilaren 24an, Olentzarok eta Mari Domingik kalejira egingo dute, 18:00etan hasita, Otsabitik Errebote pla-

zaraino. Bestalde, Jesusen Bihotza Ikastolako Guraso Elkartek, aurreko urtetan bezala, jaiotza biziduna kokatuko du Zentroa eta Eliza artean dauden plazan, 17:30etik 20:00etara.

Eresargi abesbatza. Ostiralean ere, eta urtero legez, Eresargi abesbatza herriko kaleetan kantari aterako da. Gonbitea luzatu nahi dute animatzen diren herritar guztiei ekitaldi honetan parte hartzea. Entsegua bihar egingo da Kultur Etxean, 20:00etan. Bilduko den dirua Angolan (Afrika) eskola eraikitzeko proiektu baterako izango da. Igandean, Asvinenearen txotxongiloaren ondoren, Eresargi Txiki eta Eresargi Ttipi abesbatzek 10. urteurrenaren kontzertua eskainiko dute, 19:30ean hasita Gurean. Asteazkenean, hilaren 29an, Eguberrietako kontzertua eskainiko du. Arratsaldeko 19:30ean hasiko da elizan.

Antzerkia. Igandean, hilaren 26an, Asvinenea taldearen eskutik *Bi eta zazpi edo zazpi eta bi* haurrei zuzendutako txotxongilo emanaldia izango da. Gurea aretoan eskainiko da, arratsaldeko 17:00etan. Hilaren 28an, *Kutsidazu bidea, Ixabel* antzezlan arrakastatsuen azken emanaldia ikusteko aukera izango da Olaederra kiroldegian, 20:00etan. Gorringo taldearen eskutik. Sarrerak salgai daude, bederatzi euroren truke.

ASTEASU

Olentzero. Olentzero eta Erregeez gain, haurrentzako zinema, aizkolariak eta nazioarteko ziklo-kros proba izango da dira Asteasuko Eguberrietako egitarau zabalean. Etzi, hilak 24, Olentzero izango da eguerdian frontoian, haur guztientzat gozagari.

Haurrentzako zinema. Bihar, hasiko da haurrentzako zinema programazioa. *Sherk 2* filma emango dute. Datorren asteartearen, hilak 28, *Buscando a Nemo* filma eskainiko dute eta ostegunean, hilak 30, *Peter Pan (La gran aventura)* filma izango da. Saio guztiak Kultur Etxean izango dira 16:30ean.

Erregeak. Errege bezperan, urtarrilak 5, errege desfilea izango da 20:30etik aurrera herriaren zehar.

Kirola. Igandean, urtarrilak 2, Urrezko Aizkora Lehiaketa izango da eguerdian Asteasuko frontoian. Gazteen artean Igertza eta Otaegi aizkolariak ariko dira Amillano eta Larrioren aurka eta helduen mailan aizkolari ezagunak ariko dira: Olasagasti eta Etxebeste Peñagarikano eta Txapartegiren aurka. Eta porretako ekitaldiekin bukatzeko, Errege Egunean, urtarrilak 6, azken urte hauetan ospea lortu duen nazioarteko ziklo-kros proba izango da 10:00etatik aurrera betiko ibilbidean.

ANOETA

Olentzero. Gabonetako egitarauaren baitan, ostiral honetan, hilak 24, Olentzero aterako da Isastitik 18:30ean, Loatzo musika eskolako trikitilariak alaiturik. Frontoira iritsitakoan, ongi-etorria egingo zaio eta Loatzo musika eskolako txalapartariak, Udal Dantza Eskolako dantzariak eta helduen ko-roak hartuko dute parte. Ondoren Olentzerok goxiak banatuko ditu hurbiltzen diren ume eta gaztekoen artean. Larunbata honetan, Eguberri egunean, herriko txistulari taldearen kalejira, 12:00etan. Igandean, berriz ariko dira, ordu berean, txistulariak kalejiran.

Txolarren urteurren. Astelehenean, hilak 27, Txolarre Irratiaren laugarren urtemugaren ekitaldia egingo da. *Tolosaldeko ahotsa* izeneko saio berezia egingo da. Saioa ikusi eta entzuteran hurbiltzen diren umeentzako hamaiketako ederra prestatuko du Txolarrek.

Erregeak. Urtarrilean, Erregeen kabalgata egingo da, hilaren 5ean. 19:00etan irtegan dira Erregeak Basagain menditik, Loatzo musika eskolako eskusoinujoleek alaiturik. Herriko frontoian Erregeek goxiak banatuko dituzte. Eguberrietako egitarauari amaiera emateko, urtarrilaren 6an, osteguna, Anoetako txistulari taldearen kalejira izango da 12:00etan hasita.



Zatoz kanpaina honetako dendetara eta 3.000 euroko erosketa-txeke baten zozketan parte hartzeko aukera izango duzu. Horretaz gain, deskontu-saritan beste 3.000 euro banatu behar ditugunez, 30 euroarainoko deskontua irabaz dezakezu.

ALDABA ▶ GIZARTEA

Aldabako herritarrak senidetuta

Aldabako (Nafarroa) ordezkariak eskualdea bisitatu zuten pasa den larunbatean



Aldaba herrietako ordezkariak eta herritarrak Tolosako udaletxean izandako harrera ekitaldian. I.TERRADILLOS

OLAIA ESKITXABEL

Aldaba izeneko bi txoko; bata, Nafarroan, Iruñeko bidean, bestea, gertuago: Alegiatik goragoko bidean. Nafarroako Aldaban, 101 biztanle bizi dira; bestean, askoz gutxiago. Biak, ez dute udaletxe propioirik; eskualdeko Aldaba Tolosako Udaletxean sartzen da eta Nafarroakoa, Izako kontzejuan. Bien artean senidetze hiztarmena dute.

Gipuzkoan ere Aldaba izeneko lekutxoak zegoela jakin zutela esanez, bertako biztanleekin harremanetan jarri zen udal ordezkari nafar bat. Eta ezagutzeko irrikaz, orain dela lau hilabete inguru, Nafarroa aldera joan ziren eskualdeko Aldabako hainbat herritar: «Herri guinea nahiko garatua dago; etxeak bata bestearen ondoan ikusi daitezke. Hemen, berriz, oso banatuta gaude», dio Ramon Emanaldek, Aldabako (Tolosa) Elizondo jatetxeko nagusiak.

Bisita hartan, bueltan nafarrek Aldaba ezagutzera etortzekotan geratu ziren. Horrela, pasa den larunbatean, abenduaren 18n, eskualdean izan ziren: «Tolosan Gabonetako azoka berezia zegoela eta, eskualdera bisitan etortzeko data egokia izan zitekeela iruditu zitzaigun», azaldu du Emanaldek.

Harrera ekitaldia

Azoka berezia ikusi aurretik Tolosako udaletxean harrera ekitaldia egin zitzaion Nafarroako Aldabatik gerturatutako sei udal ordezkariari (tartean, alkatea). Bertan, Aldabako herritarrak, Tolosako alkatea, Jokin Bildarratz, eta beste hainbat udal ordezkari bildu ziren.

Aldabako (Nafarroa) udal ordezkariak *Tolosa begien bisita* DVDa eta eskualdeko mendi ibilaldiei buruko liburuxka oparitu zizkieten. Horretaz gain, Tolosaldeako eskualdea-

ri buruzko hainbat datu ere azaldu zituen Jokin Bildarratzek.

Aldabako Elizondo jatetxera joan ziren eguerdian bazkaltzera; hemezortzi lagun inguru bildu ziren mahaiaren bueltan: «Gustura egon ginen; asko aurreko bisitatik ezagutzen ginen eta ilundu arte mahaiaren egon ginen hitz egiten», adierazi du Emanaldek.

Aurrera begira, eta ezer zahazu ez badute ere, harreman izaten jarraitzeko gogoz aurkitzen dira Gipuzkoako zein Nafarroako aldatarrak. Sargardotegi garaia dela eta, sargardotegi batean biltzeko ideia atera zela aurreratu du Ramon Emanaldek: «Nafarroatik autobusa antolatuko zutela esan zuten». Baina hitzordu hori, Gabonak pasatu ondoren izango da: «Data berezi hauek pasatzean hitz egitekotan geratu ginen». Inauteri inguruan bildu daitezkeela ere gaineratu du aldatarrak.

ALBIZTUR ▶ UDALA

Etarteko etxebizitzetan izena emateko aukera

Urtarrilaren 3an amaituko da etxebizitzetan izena emateko epea

O.ESKITXABEL

Etarte eremuan hemezortzi etxebizitza eraikiko dituzte; etxebizitzetan sustatzaileari Albizturko Udalak proposatuko dizkion pertsonak hautatzeko baldintza pleguak argitaratu dira. Bertan, hautaketa horretan parte hartzeko dokumentazioa eta puntuazio erizpideak jasotzen dira. Interesatuak bulego orduetan eskura ditza-kete aipatutako pleguak.

Etxebizitzetan izena eman

nahi dutenek urtarrilaren 3a bitarteko epea izango dute. Eskaera bakoitzean Udalaren esku jarri beharko da eskaerazko helbidea, gero, egin beharreko notifikazioak jakinarazteko. Eskaerak eredu ofizialean gauzatu beharko dira eta lehiaketa fasean puntuazioa ere gaineratu beharko dute.

Informazio gehiago Albizturko udaletxean eskuratu dezakete interesatuak.

ORENDAIN ▶

Gabonetako abestien entsegua, bihar

Gabonetako abestien entsegua deitu dute biharko Kultura Batzordeak eta Guraso Elkartek. Entsegua, udaletxean izango da, 19:30ean. Era berean, ostiralean, abenduaren 24ean, abesten atera nahi duten herritarrei herriko plazan 09:00etan biltzeko deialdia luzatu diete.

ALEGIA ▶

Aurrera darraite urteurreneko ekitaldiek

Gaztearean 17. urteurreneko ekitaldiak abenduaren 2an hasi ziren eta urtarrilaren 14a bitartekoa izango da; aste honetarako ere ekitaldi ugari antolatuko dituzte. Atzo, zine-kluba izan zen; bihar, Alpeen inguruko diapositiba emanaldia izango da 21:00etan. Etzi, ostiralean, jai sorsua antolatuko dute urter bezala. 01:00etatik aurrera izango da.



laz egindako txokolate-jatea. o.e.

iragarki laburrak ▶



Anoeta. 125 m2 eta garajea duen duplex etxebizitza ederra salgai.

Belantza. 1.060 m2-ko pabilioia salgai; erabat argitsua eta garabiarekin.

Belantza. 225 m2-ko pabilioia alokairuan; erabat argitsua. Ur eta elektrizitate instalazioa.

Donostia. 104 m2-ko etxebizitza salgai Colon pasealekuan. Ikuspegi zoragarriak eta erabat berritua.

Donostia. Rodil zeharkalean, apartamendua salgai. Berritua; kanpoaldera.

Gaintza (Nafarroa). Berrikuntza behar duen 3 solairuko baserria.

Ibarra. 95 m2-ko etxebizitza, oso eguzkitsua, kanpoaldera begira. Ikuspegi ederra.

Ibarra. 75 m2-ko etxebizitza salgai. Lehenengo pisua; kanpoaldera.

Ibarra. 75 m2-ko pabilioia eta 2.500

m2-ko lur saila salgai. Nekazal ustiapenerako egokia.

Lizartza. 14.000 m2-ko pabilioiak salgai, 300, 450, 625 eta 900 m2-ko moduluetan, eraikuntza berrikoak.

Tolosa. Agintari kalean 75 m2ko eraikuntza berriko etxea salgai.

Tolosa. Gernikako Arbolan, 155 m2-ko etxebizitza salgai, kanpoaldera, berrituko.

Tolosa. Gudari kalean, Samaniego

kalearekin iskinean, 110 m2-ko etxea, kanpoaldera, eguzkitsua, igogailua.

Berritzeko premia. Tolosa. San Frantzisko kalean, 61 m2ko apartamendua salgai.

Tolosa. Amaro; 115 m2ko etxebizitza. Igogailuarekin. Berrituko.

Tolosa. Lokal komertzialak, salmantan edota alokairuan (Gorosabel, Iurre, Kale Nagusia, Larramendi...).

IBARRA ▶ GIZARTEA

Emaitza onak lortu ditu Merkatu Txikiak

Gustura daude San Bartolome Misio Taldekoak; herritarrak eskertu nahi izan dituzte egun hauetan laguntzeagatik

IÑIGO TERRADILLOS

Amaitu berri da urtero Ibarra-ko San Bartolome Misio Taldeak antolatzen duen Merkatu Txikia. Antolatzaileak oso gustura daude aurtengoan lortutakoarekin. Xabier Aierza elkarreko kideak aipatu duenez, «dendariak eta herritarrek gauza asko utzi zituzten merkaturia zabaldu aurretik eta laguntza hori asko eskertzen da». «Baina laguntzak ondoren ere jarraitu du, Merkatu Txikia zabalik egon den astean jende ugari etorri baita erostera», azaldu du Aierzak.

Horrela, 4.000 euro biltzea lortu dute egun hauetan saldu dutenarekin. Hori dela eta San

Bartolome Misio Taldeak eskerriak eman nahi dizkie bai produktuak utzi zituztene eta baita merkatura gerturatu diren guztiei ere.

Proiektuak bideratzeko

Bildutako dirua misio taldeak parte hartzen duen hiru proiektuetan laguntzen jarraitzeko erabiliko da, Indiako Gujerat probintziako Ghogha herriari, Ekuadorreko Santa Rosan eta Honduraseko hiriburu Tegucigalpan, hain zuzen ere.

Izan ere, bi eta bost urte bitartekoentzat haurtzaindegia, eskola zerbitzurako aterpea, gurasoen bileretarako lokala,

emakumezkoen formaziorako lokala, gazteen kultur programak aurrera eramateko lokala eta guztien zerbitzuak bideratzeko lokala eraiki nahi dira Ghogha herrian eta herriko beharrezkoak diren etxeak Tegucigalpan eta farmazi komunitarioak Santa Rosako auzo bakoitzean.

Proiektu bakoitzerako Ibarra-ko Udalak 3.500 euroko laguntza ematen duela ere aipatu behar da, guztira 10.500 euro batu behar baitaizkio Merkatu Txikian bildutakoari.

Bestalde, datorren urtarrilaren 8an San Bartolome Misio Taldeko hiru kide eta elkartean laguntza ematen duten hainbat lagun Indiako Ghogha herria



Arrakastatsua izan da aurtengo Ibarra-ko Merkatu Txikia. HITZA

joango dira bertan parte hartzen ari diren proiektuak nola ari diren bideratzen ikusteko asmoz.

Horretaz gain, egoera zertan den ikusi ahaliko dute euren begiez eta dituzten beharrez jabetu. Eta horrela, datorren urterako zehaztu ahaliko dituz-

te behar horiek ikusita eta lehenastunaren arabera zein proiekturi lagundu.

Gainera, otsailean, Joxe Mari Garmendia Ekuadorrean joandako Ibarra-ko apaiza etortzeko da eta berak ere kontaktu ahaliko die zertan lagundu daitekeen lurralde horretan.

IBARRA ▶ GAZTETXEAREN KULTUR ASTEA

Balorazio ona egin dute Gaztetxe-ko Kultur Asteko antolatzaileek

Gaztetxean ekitaldiak antolatzen jarraitzeko asmoa azaldu dute

I. TERRADILLOS

Ibarra-ko Gaztetxeak XI. urterena ospatu du aurten eta urtero egiten duen bezala ekitaldi desberdinak antolatu dituzte pasa den aste osoan zehar.

Antolatzaileek aipatu dutenaren arabera jende asko hurbildu da eta gustura daude egindako lanarekin.

Kultur Astearen hitzaldiak nagusitu dira eta horien artean AHTren aurka Manu Odriozola anoetarrak egindako hitzaldia nabarmendu nahi izan dute Gaztetxe-koek, «jende ugari izan zelako eta oso interesgarria izan zelako».

Bestalde, azken egunean, igandean, izandako Kirmen Uriberen poesia errezitaldia «berrikuntza izan da eta jende asko gerturatu zen». Eta antzerki saioekin eta bertso afariarekin ere emaitza onak izan direla eta pozik daudela azaldu dute Gazte Asanbladakoek; «normala den bezala ekitaldi batzuetan besteetan baino jende gehiago izan da eta hurren-



Jende ugari animatu zen bertso afarira. HITZA

go urterako aztertuko dugu zerekin hurbildu den jende gehien», gehitu dute.

Herriko jendea elkartzeko balio dutela Kultur Ekitaldi hauek eta aurrera begira noiz behinka antzerkiak eta hitzaldiak egiten jarraituko dutela Ibarra-ko Gaztetxean adierazi dute.

Gainera, eskerrak eman nahi dizkie Kultur Astea egitea posible izan duten guztiei eta Gaztetxera hurbildu direnei.

Ostegunetan izaten den zine-klubak Gabonetan saio bereziren bat eskainiko du, baina geldiune baten ostean urtarrilean berriro hasiko dira filmak eskainiz.



Ihauteriak prestatzen

LIZARTZA ▶ Datorren urtereko Lizartzako Ihauteriak gerturatu ari direla eta, jadanik Otsolar dantzari-taldea hasia da dantzak entseatzeko. Hain zuzen ere, urtarrilaren 22, 29 eta 30ean izango dira Ihauteriak. Herritarrak hasiko ziren, beraz egun horietan erabiliko dituzten moztarrok aukeratu eta prestatzen, aurtengoak oso goiz izango baitira eta asko sorpresaz harrapatu dituela seguru. Hamabigarren urtez ospatuko dituzte Ihauteriak Lizartzan, eta beti bezala lehenengo egunean txekorria hiltzea egingo da. HITZA

LEITZA ▶ KIROLA

Agirre-Iraola bikoteak Nafarroako Pala Txapelketa lortu du

Euskal Herrikorako sailkapena ere eskuratu dute gazteek; gomazko pilotarekin aritzen dira, 22 urtez azpikoen mailan

JAIONE ASTIBIA

Larunbatean jokatu zuten finala eta txapela buruan eta garai-kurra eskuan zutela itzuli ziren etxera, Saioa Iraola eta Iera Agirre, Leitzako pilota palako jokalaria.

Lizarran zuten partidua, 22 urtez behiko Emakumeentzako Nafar Txapelketako azken saioa, Nartarteko Iriarte ahizpen aurka eta 30 eta 25eko emaitza lortuta, garaipena eskuratu zuten. Nafarroako Txapelketak dira, beraz, eta bide batez, Euskal Herriko txapelketarako txartela ere eskuratu zuten. Partidu hauek jokatzeko egutegia, oraindik erabakitze-koa dago, bestalde.

«Oso partidua gogorra egin zitzaigun, eta luzea ere bai, ordu eta erdiz aritu ginen jo eta jo, baina gainera, tantoak ere oso pilotakada askoak egin genituen. Lan asko egin behar izan genuen irabazteko, bai», zioten astelehenean, bi neskatxek. «Goizean jokatu genuen partidua ere, nabaritu genuen», zioen batek eta «oraindik ere nabaritzen dugu, airubetekin gaude eta», erantsi besteak umoretsu. Baina lortu-



Iera Agirre eta Saioa Iraolak, 22 urtez behiko emakumeentzako Nafar Txapelketa irabazi dute. JAIONE ASTIBIA

takoarekin oso gustura zeuden biak hala biak.

Hori arratsaldez lortu zutena, baina beraiek esan bezala, goizez Etxarri-Aranatzen beste partidua bat jokatu zuten: helduen mailan, Euskal Herriko konfederazioko finala. Kasu horretan, ordea, txapeldun orde gelditu zen Agirre-Iraola bikotea, Abadiñoko pilota eskolako bikoteak 15 tantotan utzi baitzuten Leitzakoa.

Leitzako pilota eskolan prestatzen dira palari hauek, beste

bi lagunekin batera —Naiara Astibia eta Saioa Aristorena— astean bitan, Juan Luis Aranbururen esanetara eta txapelketek dirauten bitartean, aste-bururo-aste-bururo izaten dituzte partidua. Adierazi zutenenez, oso eskertuta daude gurasoek ere egiten duten lanagatik, «Migeli eskerrak eman nahi dizkiogu batez ere, beste batzuen artean, orokorrean txapelketa antolatzen egin duen lanagatik», erantsi nahi izan zuten gazteek.

LEITZA ▶

Animoak aseta itzuli dira gol jaialdia burutu ondoren

2 eta 4koa eskuratu dute kanpoan; bi asteburu jarraietan atsedena dute orain

J. ASTIBIA

Larunbatean oso gustura itzuli ziren Salazarren mutilak etxera, kanpoan, Lekunberrin zehazki, 2 eta 4ko emaitza eskuratu baitzuten.

«Animoak goian ditugula itzuli ginen etxera», zioen Zunzunegi, taldeko lehendakariak, jokatu duten azken partidua oroitzen: «Sailkapenean goian mantentzeko beharrezkoa zen horrelako emaitza eskuratzeko eta gustura egoteko modukoa da». Kiroltasunez jokatu, baina lehiakortasun handiko partidua izan omen zen Beti Kozkorren aurka jokaturako hau. «Jokalariek serio eta zuhur jokatu zuten. Zelaia putzuz beteta zegoen, haize handia zebilen... baina aurrenetik markagailua aurka bage-nuen ere, buelta ematea lortu ez ezik, oso joko ona erakutsi eta garaipen oso argia eskuratu zuten jokalariek», zioen gustura, «talde egin zuten», erantsiz.

Bertakoak baino Leitzatik joandako ikusle gehiagoren txalo artean ibili ziren, E. Barberia (1-1, 2-4koa penaltiz), Andueza (2-3koa) eta Antolin (2-2koa), besteak beste.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Erztaintza: 53 88 20

Villabona. Anbulat.: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Etxebeste. Gernikako

arbola 3 (Tolosa). 943 651 040

Plaza, M. Elbarren 36 (Leitza).

112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_publici@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoeta-Idia. 687 41 00 22

anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzaldea. 687 41 01 18.

leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info

LEITZA ▶ GIZARTEA

Diego Riañok irabazi du ETB1eko 'Basetxea' saioa

Beste finalistarekin partekatuko du saria

J. ASTIBIA

Herenegun gabean hautatu zuten *Basetxea* programako irabazlea eta Diego Riaño leitzar gazteak jaso zuen saria.

Hautaketa izan zen, hain zuten ere, saioak irauten zuten bitartean ikusleek bidalitako mezu gehien berak jaso baitzuten. Atzokoan, herrian barrena grabaketak egiten ari zirela, adierazi zutenenez, 27.000 dei

jaso omen zituzten saioak irau zuten bitartean, sekulan izan duten parte-hartzerik handiena zela argituz.

Kontuak kontu, astean zehar egin zuten bozketen arabera, Diego Riaño igaro zen finaleko hirukotera eta azken txanparaino lagun izan zuten Lander Ibarluzea, Etxabarriko kidea. Biak hala biak ere, *Basetxe*ko ataletan zehar frogatu duten moduan, bertsolari amorra-



Atzo herriko bokoetan grabaketak egiten aritu ziren Diego eta. J. ASTIBIA

tuak izaki, halaxe eman zioten bukaera ere saioari, bertso barenarekin, saria bien artean ba-

natuko zutela jakitera eman ondoren. Hemezortzi mila euro irabazi zituzten.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Soinu ekipoa. Soinu ekipoa osoa

salgai. Argibideetarako deitu:

943 67 48 06 edo 943 117738.

LANA

Sukaldaria. Tabernarako

sukaldaria behar da

asteburuetan lan egiteko.

943 69 19 33.

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko abenduaren 22a, asteazkena ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Alaitzolaia, Aduna, Albituz, Aegia, Aizoa, Alzo, Amerleña, Ansoa, Balaizoa, Beberria, Beralegi, Etxauri, Herriale, Itzara, Iruña, Lantza, Lantzarri, Lizartza, Oñemari, Oñena, Tolosa, Villabona, Zuzuki
besterk: Leiztaldeko Euskara Batasuna

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurlaritzako
Kultura Saila

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

9

hotzera

6

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA
ARALARREN



Guardetxe:

gaur: ez / bihar: ez

Pagomari:

gaur: bai / bihar: bai

HITZA-KO BEZEROEN
ARRETA ZENBAKIA

(Zalantzak, harpidet egiteko...)

943
30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Alpeen inguruko diapositiba emanaldia. Bihar, 21:00etan Gaztebean, bere 17. urteurrena dela-eta.

Anoeta. Dantza-sokako bilera. 20:00etan udalebean.

Irura. Xake txokorako izen emateko azken eguna da gaur. LH1etik aurrerakoek Ikastolan edo udalebean eman dezakete izena.

Tolosa. Rai ipuin kontalaria Aitzol udal eskalategian ariko da 15:30ean ipuinak kontatzen.

Tolosa. Udal Musika Eskolako ikasleen kontzertua, 19:30ean, Musika Eskolako aretoan.

Tolosa. Inauterietako danborradan parte hartuko duten emakumeen bilera, 20:00etan Kultur Etxean.

Tolosa. 2005ko mendiko federatu txartela egiteko Oargi mendi elkarte zabalik egongo da asteartean eta ostegunetan 19:30etik 21:00etara (Gabonetako oporretan ez) eta Alpino Uzturre elkartearen astelehena eta asteazkenetan 19:30etik 21:00etara.

Tolosa. Gabonetan Hirukide ikastetxeak ludoteka zerbitzua eskainiko du 3 eta 8 urte arteko haurrentzat Gainberrin: tailerrak, jolasak, eskulanak, irteerak... 9:00etatik 13:00etara izango da (bazkariarekin 14:00etara). Informazioa 943 67 39 48 edo idazkaritzetan.

Tolosa. Laskorain ikastolaren Merkatu Txikirako material bilketa. Gaur ikastolan edo Euskal Herria plazako eskalategi zaharrean 18:00etatik 19:00etara; bihar, Kultur Etxean arratsaldez.

Tolosa. Harizpe elkarteak Gabon sariak oparitutako dizkie bazkideei 10:30etik 12:30era egoitzako beheko solairuan.

Tolosa. Haur Parkea Beotibarren 17:00etatik 20:00etara. Marrazki lehiaketa 17:00etan.

KIROL ASTEA

Tolosa. Xabi Fernandez eta Iker Martinez de Lizardui, Olinpiar Jokoetako urrezko dominak, belari buruz ariko dira udalebean 19:00etan.



Anoeta. Gustura jan eta edan zuten Alkartasuna biltokian. I. GARCIA



Irura. Hamalagarren urtez egin dute txisor jatea. I. GARCIA

Ogi eta txistor festa

TOLOSALDEA ▶ Zizurkil, Villabona, Anoeta eta Irurako jubilatutako elkarteetan Santo Tomas egunean bazkideei txistorra eskaintzeko ohitura dago



Zizurkil. Ehun lagun inguru bildu ziren txistorra eta ardoa dastatzera Elizpe elkarteetan. I. GARCIA

ERREDAKZIOA

Eskualdeetako kaleetan ez da, Donostian edo Azpeitian ohituraenez, txistor eta txorizo usairik izaten Santo Tomas egunean. Kaleetan ez, baina jubilatuen elkarteetan gustura elkartzen dira bazkideak txistor ogitartekoa eta ardo pixka bat hartzera. Zizurkilgo Elizpe elkarteak lan eta lan jardun zuten, biltokira joandako ehun kide ingururi ogitartekoak zerbitzatzeko. Gainera, elkarteak kaferra gonbidatu zituen, urte amaierako operari moduan. Iruran, urteko balantzea egin ondoren, Irura urdaitegiak eta Epelde okindegiak emandako produktuekin asetu ziren. Anoetan, jende ugari bildu zen. Oparo jan eta edan ondoren, 20 lote zozketatu zituzten bazkideen artean. Villabonan ere giro polita izan zen atzokoan.

AGURRAK ▶



Martin Larraz Erbiti (Attuna).

Gaur 74 urte.

Lehenago urtean joan zinen gure ondotik, zu hainako zulo handia utziz. Beti gurekin izanen zara.

Leiztan,
2004ko abenduaren 22an.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKONAN
Zorionak, txiki
(Amasa-Villabona).
Senideen partetik.

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!